

# Antzerkia

## Hiru Puntu

# Karrusaren bueltan

Abenduaren 6an estreinatu zuen Hiru Puntu taldeak *Fauxto* karrusa Anauzen. Hilaren 20an despeditu zen karrusa Larresoron, Domintxine, Miarritze eta Hazparnetik pasa eta gero. Antzezlan efimeroa zinez, Garazi alde horretan egosten den errealitate baten ispilu.

ELIXABETE GARMENDIA

DONIBANE GARAZITIK Baigorriako bidea hartu, Azkarate pasa eta hurrena Anauze dator. Ilunpean, Hargaineko sorgin zaharrak ilargiari keinuka ari zirenekoak dirudite bidez bi aldeetako etxeek. Baina gaur ez dabil hego haizerik eta ilargiak apenas zulatzen dituen lainoak.

Anauzeko herriko gelan, epelean, afaltzen ari dira Hiru Puntukoak arratsaldeko seiantan. Azpilkada entsalada, txorizoa, pastelak... Alboan ardi larruz erdi jantzita gazte koadrila. Ez, hauek ez dira aktoreak, inauterietako entsegua egin behar dute orain herrian zehar. Thierry Biskaryk (kalapitaria.blogspot), taldeko kapitaina bera, esplikazioak.

Hartan, sartu da Antton Luku, bi besoak trastez beteta. Lukuk idatzi eta zuzentzen du *Fauxto karrusa*. Karrusa, Garaziko euskalian, tobera da, antzerki satiriko mota bat.

Afaltiarren artetik altxa eta badator Iñaki Etxeleku-Fauxto. Fauxto, ixaz, Goetheren Faustorengan inspiratua. Hark gaztetasunaren truke saldu bazion arima Mefistori, *Fauxton on the wave*, modaren puntaren puntan, egon nahia-gatik kulturaren transmisioa nola galarazten den kontatzen da. Edo Iñaki Etxelekuren hitzetan, “jendeak, kulturari ari den eta aritu den jendeak, bizi duen konplexua. Erreferentziak kanpotik datoz, metropoliatik, dela Paris, Madril edo Amerika, eta beti frogatu nahi izate hori euskal kultura gai dela haien heinerat heltzeko”.

Zortzi eta erdietan da hitzordua eta ordu erdi lehenago hasi da jendea iristen, ezarian ezarian, baina etengabe: gazteak gehienak, guraso batzuk umeekin, adineko bakan batzuk. Eta atera begira, Antton Luku urdurituz doa. Haren kezka jende gehiegi etortzea da (!). Zer egin sobera gera daitezkeen ikusleekin?

Gelan oihal beltzez estalitako tramankulu bat, aktoreentzat eta haien trasteentzat gordeleku, eta aldamio bat, hau ere oihal beltzez estalia. Ez dago tauladarik, ez mikrofono eta

soinu mahairik, ezta ikusleentzako aukirik ere. Ertz batean kantina, garagardoa, arnoa eta jusak eskaintzen dituela. Etorri ahala jendeak hartzen du tokia, tragoa eskuan, osatzen dira taldetxoak tertulian... Antzokia ez baino herriko plaza dirudi honek, teilatupean egotea. Ikusleen artean –papera aldatuta beraz– Ander Lipus, azkenaldian Iparraldean sarri ibiltzen den aktore bizkaitarra.

Halako batean entzun da ozenki abisua, halako matrikulako autoa kentzeko edo... eta laster liskar itxura hartzen duen eztabaida; frantsesez mintzo den gizon txapeldun batek kontuak eskatzen dizkio Lukuri... Moskeoa ikusleen artean... Lukuk espontaneoak gaineiten kendu du nolabait... eta Mañolo Espelleiten eskusoinua lagun, aktoreak hasten dira desfilatzen ozta-ozta tokia eginez ikusleen erdian. Funtzioa ustekabeen hasi da, errealitatearen eta antzerkiaren arteko mugak hautsita.

Sabino Aranek Larrinagako kartzelan gabonetan egin omen zuen afari pantagruelikoaren menuak zabaltzen du ikuskizuna –Jon Alonsoen testu bati keinua–. Gero etorriko dira Fauxtoren bi ttantak –izebak–, eta haien elkarrizketak jarriko du jendea algaraka.

Hortik aurrera komizidatea nagusi, eztena zorrotz, baina lirikari eta eztitasunari ere tokia eginez, eta gogoetari. Aktoreek jokatu eta jolastu egiten dute, ikusleen konplizitatea bilatuz; gonbidatzen dituzte tragora edo pintxoak jatera, ateratzen dituzte dantzara eta manifara, beti ere karrusak iradokitzen duen mugimenduaren borobilean... Eta horrela bi ordu, etenik gabe, zalaparta batean.

Antton Lukuren kezka bazuen arrazoia. Azkenean igandean beste emanaldi bat egin behar izan zuten Anauzen, larunbatean sartu ezinik geratutako ikusleentzat. Bi astetan erretzat joko dute *Fauxto karrusa* Hiru Puntukoek. Kulturaren transmisioan maixu-maistra, antzerki zaharretik edan eta... *on the wave*-ekoa atera zaie karrusa. ■

**Atera begira,  
Antton Luku  
urdurituz doa.  
Haren kezka  
jende gehiegi  
etortzea da**

